

Amaitu da Txapa eta Forjako osagaiak fabrikatzeko Diseinu eta Fabrikazioaren espezializazioko Ziklo Ondokoa.

2012/02/01

Ikastaro hau Lanbide Ziklo Ondoko izeneko hezkuntza eskaintza berri baten barruan kokatzen da, eta helburua da aurretik Goi Mailako Prestakuntza Zikloa egin duten pertsonen formazio espezializatua ematea (fabrikazio mekanikoaren familian); aipatu espezializazioa Txapa eta Forjako osagaien eraldaketaren sektorerara zuzenduta dago.

Ikastaroa amaitu duten 10 ikasleek egun horretan beran jaso zuten irakasleen eta lanen aurkezpena joan ziren enpresen errekonozimendua eta zoriona.

Prestakuntza jardueraren alderdi nagusietakoak dira:

1. Programa garatzeko erabili diren jarraibideak Eusko Jaurlaritzako Enplegu Sailak onartutakoak dira (Lanbide), eta ikastaroa gainditu duten ikasleek "Matrizegile Moldegilearen" lanbideari dagokion ziurtagiria jaso dute.
2. Ikastaroak 2 zati ditu. Kurtsoaren lehenengo zatiak 490 eskola ordu inguru irauten du, eta eskolak MGEPeko instalazioetan eman dira. Ikastaroaren bigarren zatian, berriz, helburua sektore enpresetan lanean sartzen laguntzea da. Horretarako, lankidetzak hitzarmenak ezarri dira ikastaroa babesten duten enprekin, eta aurreikusita dago gutxienez ikasleen % 60ri lan kontratua egingo zaiela, gutxienez 6 hilabetekoa, lanaldi osoz.

Prestakuntza jarduera honetan interesa erakutsi eta babestu duten enpresak izan dira FAGOR ARRASATE S.Coop., COPRECI S.Coop., ULMA FORJA S.Coop. eta LORAMENDI S.Coop.

Ikastaroari buruz egin den balorazioari erreparatuta, ondorioztatzen da proposatutako formazio ekintzak lanean hasten laguntzen duela, enpresen eskaeretara moldatzen delako, eta asmoa da ikastaroa berriro ere abiaraztea, egokituta, eta konformazioaren sektoreari lotutako enpresa kopuru handiago batera zabalduta.

Horrez gain, enprekin izandako komunikazioari esker, Muntaketaren arloan prestatutako profesional berrien eskaera handia dagoela detektatu da eta, horregatik, etorkizunera begira, beste Ziklo Ondoko berri bat eskaintzea aurreikusi da, muntaketa mekanikoan teknikari espezialistak prestatzera zuzenduta.



Post-Zikloak